Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko maiatzaren 27a, asteazkena — 98 — Miércoles, a 27 de mayo de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*244 LI/2020 Foru Agindua, maiatzaren 20koa, nekazaritza ustialekuetako titularrek nekazaritza aseguruak kontratatzeko laguntzen 2020ko deialdia onartzekoa.*

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak 2020ko maiatzaren 20an ondorengo agindua eman du:

Uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustialekuetako lehiakortasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetzeko laguntzak ezartzen dituenak, II. Tituluko V. Kapituluan (Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuen kargura soilik ordaindutako laguntzak xedatzen diren horretan) nekazaritza aseguruak kontratatzeko diru laguntzen xedea, araubidea eta kopurua ezartzen ditu.

Laguntza horientzako 2020. urteko eskaerak aurkezteko epeak eta gainontzeko baldintzak ezarri egin behar dira, eta laguntza programa horren gasturako baimena ematea Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko foru diputatu honi dagokio, laguntzaren zenbatekoa dela eta, hala ezartzen baitu 40.4.b) artikuluan eta Xedapen Gehigarrian (abenduaren 23ko 9/2008 Foru Arauaren 14. Xedapen Gehigarriak aldatutakoan) Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak.

Deialdiaren xedea laguntzak ematea izanik, interes orokorreko helburua du eta ez zaio aplikatzen epemugen etetea eta epeen geldiarazpena (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, Covid-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma egoera deklaratzekoak, hirugarren xedapen gehigarriaren lehenengo atalean ezarritakoa), xedapen gehigarri beraren laugarren atalak aurreikusten duen bezala.

Diru laguntza lerro hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago.

Hori horrela, foru diputatu honek,

EBATZI DU

*Lehena.* Onartzea nekazaritza ustialekuetako titularrek nekazaritza aseguruak kontratatzeko diru laguntzen 2020ko deialdia, foru agindu honen eranskin gisa doana.

*Bigarrena.* Baimena ematea 110.000,00 euroko gastua egiteko, 1.0240.400.481.00.07.2020 kontu sailaren kargura, deialdi horri aurre egiteko.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, diru laguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Orden Foral n.º 244 LI/2020, de 20 de mayo, por la que se aprueba para el año 2020 la convocatoria de ayudas para la contratación de seguros agrarios por titulares de explotaciones agrarias.*

El Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, con fecha 20 de mayo de 2020, ha dictado la siguiente Orden:

El Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, de Ayudas para la mejora de la competitividad y la sostenibilidad medioambiental de las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula en el Capítulo V del Título II el objetivo, régimen e importe de las ayudas para la contratación de seguros agrarios, ayudas financiadas exclusivamente con cargo a los presupuestos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Siendo preciso regular para el año 2020 el plazo y demás condiciones de presentación de solicitudes para acceder a dichas ayudas, de conformidad con lo establecido en el artículo 40.4.b) y la Disposición Adicional (modificada por la Disposición Adicional 14.ª de la Norma Foral 9/2008, de 23 de diciembre) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde a este diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, por razón de la cuantía, la aprobación de la convocatoria de estas ayudas.

Teniendo en cuenta su finalidad subvencionadora, la convocatoria se considera de interés general a efectos de no resultarle aplicable la suspensión de términos y plazos establecida en el apartado 1 de la Disposición Adicional 3.ª del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19, tal y como preve el apartado 4 de esa misma disposición adicional.

La presente línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud, este diputado foral

RESUELVE

*Primero.* Aprobar para el año 2020 la convocatoria de ayudas para la contratación de seguros agrarios por titulares de explotaciones agrarias, convocatoria que se acompaña como anexo a la presente orden foral.

*Segundo.* Autorizar un gasto de 110.000,00 euros con cargo a la partida presupuestaria 1.0240.400.481.00.07.2020 para hacer frente a la citada convocatoria.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

EK\CV GAO-I-2020-02253

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezezpena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2020ko maiatzaren 20a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (2253)

ERANSKINA

*Nekazaritza ustialekuetako titularrek nekazaritza aseguruak kontratatzeko diru laguntzen 2020ko deialdia.*

1. *Oinarri arautzaileak.*

Uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretuaren II. Tituluko V. Kapitulua (Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustialekuetako lehiakortasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetzeko laguntzak), ondorengo Foru Dekretuen bidez aldatutakoa: urriaren 14ko 73/2008 Foru Dekretua (urriaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 198. zk.), martxoaren 17ko 9/2009 Foru Dekretua (martxoaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 55. zk.), maiatzaren 25ko 15/2010 Foru Dekretua (ekainaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 101. zk.), maiatzaren 29ko 29/2012 Foru Dekretua (ekainaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 105. zk.) eta maiatzaren 20ko 16/2014 Foru Dekretua (maiatzaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 97 zk.).

2. *Aseguru lagungarrien lerroak eta laguntzen zenbatekoa.*

2.1. Lagungarriak izango dira aipatutako uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretuaren 87. artikuluan jasotako Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Planaren barruan dauden aseguru lerroetako polizak, baldin eta nekazaritza ustialekuetako titularrek izenpetu badituzte eta kontratazioa Agroseguroren Elkarteko erakunde laguntzaileen bitartez kudeatu bada. Era berean, nekazaritza ustialekuetako titularrek bete behar dute 66/2008 Foru Dekretuaren 14. artikuluko 1.1 puntuan adierazitakoa.

2.2. Lagungarriak izango dira, halaber, Nekazaritza Aseguruen Planean sartuta ez dauden nekazaritza elkarteek sinatutako aseguru poliza kolektiboak, zoritxarreko fenomeno klimatikoek eragindako galerak eta instalazioetako kalteak sartuta daudenean.

Diru laguntzen zenbatekoak, aipatutako uztailaren 29ko 66/2008 Foru Dekretuaren 88. artikuluari jarraituz, ondorengoak izango dira:

a) Agroseguro Elkarteko erakunde laguntzaileen bitartez kontratatutako poliza berrien primaren zenbateko osoaren % 25a, eta % 15a aurretik kontratatuta zeuden polizak berritzeko bada, behien entzefalopatia espongiformearen kasuan izan ezik, hori berritzeko, primaren zenbatekoaren % 25era arte emango baita.

b) Nekazaritza Aseguruen Planean jaso gabeko, baina Nekazaritza Elkarteek izenpetu duten poliza kolektiboen primaren zenbateko osoaren % 25a.

3. *Aurrekontu kredituak.*

Nekazaritza aseguruak kontratatzeko 2020. ekitaldiari dagozkion laguntzak ordaintzeko, hasiera batean izendatutako diru baliabideak 110.000,00 eurokoak dira, Landa Garapeneko eta Nekazaritza Egituretako programako 1.0240.400.481.00.07.2020 kontu sailaren kargura.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 20 de mayo de 2020.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (2253)

ANEXO

*Convocatoria 2020 de ayudas para la contratación de seguros agrarios por titulares de explotaciones agrarias.*

1. *Bases reguladoras.*

Capítulo V del Titulo II del Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, de Ayudas para la mejora de la competitividad y la sostenibilidad medioambiental de las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 153, de 12 de agosto de 2008), modificado por los Decretos Forales 73/2008 de 14 de octubre (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 198, de 15 de octubre de 2008), 9/2009 de 17 de marzo (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 55, de 24 de marzo de 2009), 15/2010 de 25 de mayo (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 101, de 1 de junio de 2010), 29/2012 de 29 de mayo de 2012 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 105, de 4 de junio de 2012) y 16/2014 de 20 de mayo (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 97, de 26 de mayo de 2014).

2. *Líneas de seguros auxiliables e importe de las ayudas.*

2.1. Serán auxiliables las pólizas de las líneas de seguro incluidas en el Plan de Seguros Agrarios Combinados, relacionadas en el artículo 87 del referido Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, que hayan sido suscritas por titulares de explotaciones agrarias que cumplan lo indicado en el punto 1.1 del artículo 14 del Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, y cuya contratación se haya gestionado a través de entidades colaboradoras de Agroseguro.

2.2. Asimismo serán auxiliables las pólizas colectivas de seguros no contemplados en el Plan de Seguros Agrarios, suscritas por las Asociaciones Agrarias, que incluyan daños en instalaciones y pérdidas causadas por fenómenos climáticos adversos en dichas instalaciones.

Las subvenciones a otorgar, en base a lo indicado en el artículo 88 del referido Decreto Foral 66/2008, de 29 de julio, ascenderán a:

a) El 25 % del importe de la prima total de las pólizas nuevas contratadas a través de la entidades colaboradoras de Agroseguro y del 15 % en el caso de renovación de pólizas contratadas anteriormente, excepto para la línea de encefalopatía espongiforme bovina, para cuya renovación se otorgará hasta un 25 % del importe de la prima.

b) El 25 % del importe de la prima de las pólizas colectivas de seguros no contemplados en el Plan de Seguros Agrarios suscritas por las Asociaciones Agrarias.

3. *Créditos presupuestarios.*

Los recursos económicos inicialmente destinados al pago de las ayudas para la contratación de seguros agrarios correspondientes a la convocatoria del ejercicio de 2020 serán imputables a la partida presupuestaria 1.0240.400.481.00.07.2020 del programa de Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias, por importe de 110.000,00 euros.


EK\CV GAO-I-2020-02253

Laguntza eskaera batzuei ezin izan bazaie erantzun aurkeztu ziren ekitaldiko kredituekin laguntza horietara zuzendutako kreditua agortu delako, hurrengo ekitaldiko kredituei egotzi ahal izango zaizkie, kreditu faltagatik ukatutako lehen eskaeraren data mantenduta.

*4. Eskaeren aurkezpena eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Asegurua kontratatzeko polizaren harpidetza diru laguntzaren eskaeratzat hartuko da, betiere, foru agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Nekazaritza aseguruen polizen kontratazioa gestionatzen duten Agroseguroren Elkarteko erakunde laguntzaileen hiru hilean behin aurkeztu beharko dituzte epealdi horretan kontratatutako polizei buruzko laguntza eskaerak. Ondorengo dokumentazioa erantsi behar zaio eskaerari:

— Aurkeztutako eskaeren zerrenda laburtua, eskatutako diru laguntzak adieraziz.

— Eskaeran sartutako aseguru aitorpenen xehetasuna.

— Hartzailearen edota aseguratuaren datuak.

— Aseguratutako eskubideen datuak.

— Aitorpen bakoitzaren datu guztiak, honako hauek barne: aseguruaren kostu osoa, Enesak emandako diru laguntzaren zenbatekoa, Foru Aldundiak emandako diru laguntzaren zenbatekoa eta hartzaileak-aseguratuak ordaindu beharreko zenbatekoa.

Eskaerak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/) dagoen Erregistro Elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, hain zuzen, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzekoak, ezarritako baldintzetan.

*5. Izapidetzea eta ebazpena.*

Espedienteak Landa Garapeneko eta Nekazaritza Egituretako Zerbitzuak tramitatuko ditu eta Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko foru diputatuak erabakiko ditu. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Ebazpena baiezkoa bada, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntza ordainduko dio bitarteko entitateari. Sei hilabeteko epe hori igaro eta artean ez bada ebazpenik jakinarazi, administrazio isiltasuna ezestekoa dela ulertuko da, aipatutako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

*6. Jakinaraztea.*

Prozeduraren ebazpena interesatu guztiei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan ezartzen duen bezala.

En el caso de que parte de las solicitudes de ayuda no hayan podido ser atendidas con los créditos presupuestarios del ejercicio en el que se formalizaron por haberse agotado el crédito consignado al efecto para la concesión de las ayudas, se podrán imputar a los créditos presupuestarios del siguiente ejercicio económico, conservando la fecha de la primera solicitud denegada por falta de crédito.

*4. Presentación de las solicitudes y documentación a aportar.*

La suscripción de la correspondiente póliza de contrato de seguro tendrá la consideración de solicitud de la subvención, siempre que cumpla los requisitos establecidos en la presente orden foral.

Las entidades colaboradoras de Agroseguro que gestionen la contratación de las pólizas de seguros agrarios, presentarán trimestralmente las solicitudes de ayuda de las pólizas contratadas durante el citado período, acompañadas de la siguiente documentación:

— Listado resumen de las solicitudes presentadas con indicación de las subvenciones solicitadas.

— Detalle de las declaraciones de seguro incluidas en la solicitud.

— Datos del tomador/a y/o asegurado/a.

— Datos de los derechos asegurados.

— Datos totales de cada declaración, que incluyan: coste total del seguro, importe de la subvención de Enesa, importe de la subvención de la Diputación Foral e importe a cargo del tomador/a-asegurado/a.

La presentación habrá de efectuarse a través del Registro Electrónico habilitado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/), en los términos del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

*5. Tramitación y resolución.*

Los expedientes serán tramitados por el Servicio de Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias y resueltos por el diputado foral titular del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural. A efectos de lo establecido en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el plazo máximo para dictar y notificar la resolución del procedimiento será de seis meses. Si la resolución es positiva, la Diputación Foral de Gipuzkoa procederá al abono de la subvención, abonando el importe a la entidad mediadora. Si transcurridos los seis meses no se hubiere dictado y notificado resolución expresa, se entenderá que el silencio administrativo es desestimatorio, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 25.1 de la mencionada Ley 39/2015, de 1 de octubre.

*6. Notificación.*

La resolución del procedimiento será notificada a todas las personas interesadas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

EK\CV GAO-I-2020-02253